



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2010eko maiatzaren 27a



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran (9. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. "Adituei sinestera, arazo horrek luze joko du." Hau da:
 - a) Adituak direla eta, arazo horrek luze joko du.
 - b) Adituen ondorioz, arazo horrek luze joko du.
 - c) Adituek esandakoaren arabera, arazo horrek luze joko du.
 - d) Adituak aditu, arazo horrek luze joko du.

2. "Nik ez dizuet trabarik jarriko;, zeuek duzue erantzukizuna."
 - a) baino
 - b) hala baina
 - c) aldiz
 - d) aitzitik

3. Arazo honetan ez dago
 - a) ezer eginik
 - b) zer eginik
 - c) zer egiterik
 - d) ezer ez egiterik

4. "Aspertu naiz hemen".....
 - a) Zer, joaten gara beste leku batera?
 - b) Zer, goaz beste leku batera?
 - c) Zer, goazen beste leku batera?
 - d) Zer, joango gara beste leku batera?

5. Aukera ezazu zuzena.
 - a) Behin eta berriro eskatuagatik, ez dizu baimena emanen.
 - b) Autopsiak agertu zuen zergatia: "Pozoia hartuagatik hil zen".
 - c) Hainbertze saiatarren ez zenituzten ikasketak bukatu.
 - d) Horrengatik galdu duzu trena, berandu ailegatuarren.

6. Aukeratu euskara batuan zuzena dena.
 - a) Bai, zuk badinostazu baleike hori holan izatea.
 - b) Bai, zuk badinostazu baliteke hori horrela izatea.
 - c) Bai, zuk badiostazu baliteke hori horrela izatea.
 - d) Bai, zuk badiostazu baleike hori hola izatea.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

7. "Baldintza ados nagoela adierazten dizut". Zein da zuzena euskara batuan?
- horiek guztiekin
 - guzti horiekin
 - horiekin guztiekin
 - horiekin guztihoriekin
8. "Berandu ailegatu zen;, autobusera igo ahal izan zen."
- gainera
 - hala eta guztiz ere
 - halatan bada
 - baita ere
9. "..... berezia izan da"
- 1992 urte / Espaiñian
 1992. urtea / Espaiñan
 - 1992 urtea / Espainan
 1992. urtea / Espainian
10. "..... euriak harrapatu ninduen".
- Autobusatik jaistean
 - Autobusetik jaistean
 - Autobusetik jaiztean
 - Autobusatik jeistean
11. "Ez zenuke horrela egon behar, poltsikoetan".
- eskuekin
 - eskuak
 - eskuez
 - eskuarekin
12. "Gaur betetzen dira 25 urte Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zela. Egun seinalatua,"
- aitzitik
 - beraz
 - berriz
 - horretaz
13. "Gaur goizean txorien entzun ditut".
- irrintziak
 - urrumak
 - txintak
 - txilinak



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

14. “Gaur irakasle berri bat etorri zaigu, lau hizkuntza” .
- dakienak
 - dakizkiena
 - dakizkienak
 - dakizkiela
15. “Gehienez ere, hogeï urte edo izango ditu”. Beste era batera esanda:
- Oso goitik jota, hogeï bat urte izango ditu.
 - Goia jota, hogeï bat urte izango ditu.
 - Gehiena jota, hogeï bat urte izango ditu.
 - Goien jota, hogeï bat urte izango ditu.
16. “Gibraltarko gatazkak Europar Batasuneko barne-mugen desagertzea oztopatzen du”.
- Gibraltarko arazoari esker aiseago eroriko dira mugak Europan.
 - Gibraltarren erruz Europako mugak desagertu egingo dira.
 - Gibraltarko arazoa dela eta, Europako mugak ez dira hain erraz desagertuko.
 - Gibraltarko akordioak Europako mugen desagertzea ekarriko du
17. “Gizon hura ere bilakatu zen oihanean”.
- otsoan
 - otsotzat
 - otsoa
 - otso
18. “Goiz, ez dago eguerdian tontorrean egoterik”.
- irten ezik
 - irten ez ezik
 - irten ezkerre
 - ez irtetekotan eta
19. Honako hauetatik zein da eraikuntzan erabiltzen EZ den lanabesa edo tresna?
- garabia
 - txirrika
 - aldamia
 - titarea
20. Hurrengo esaldietatik zein dago **OKER**?
- Lakuaren ondoan jarri genuen kanpin-denda.
 - Bihotzaren hondo-hondotik esaten dizut hau.
 - Zuk hitz egiten duzu ondoen.
 - Gerra hondoan ikusi nuena ikaragarria izan zen.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

21. Hurrengo esaldietatik zein dago **OKER**?
- Hainbat eskolatako irakasleek baietz esan diote aldaketari.
 - Umeak gelan sartzen ziren ahala, beren tokietan esertzen ziren.
 - Egitaraua ikusita, argi dago merezi duela jaietara etortzea.
 - Argi gutxiko aretoa eman zieten hitzaldia egin zezaten.
22. “Joseba ezagutuko ez dut, ba!” Beste era batera esanda:
- Joseba ezagutzen dut.
 - Ez dut Joseba ezagutzen.
 - Ez dut Joseba ezagutzen, baina ezagutuko dut.
 - Ez dut Joseba ezagutzen, ezta ezagutuko ere.
23. “Lortu zuen gainditzea, asko kostatu”.
- nahiz eta / arren
 - nahiz eta / bazitzaion ere
 - nahiz / zitzaion
 - nahiz / arren
24. Lur malkarren higadura.
- luizia
 - luberria
 - lubakia
 - lurrikara
25. “Nirekin etorri nahi duenak har bere gurutzeta eta jarrai”.
- beza / bekit
 - dezala / zakizkit
 - dezan / bedi
 - zezan / biezait
26. Nola esaten zaio erraz haserretzen denari?
- haserrakor
 - haserragarri
 - haserrekor
 - haserradura
27. Nola idazten da letraz honako data hau euskara batuan? 1876-2-20.
- Mila zortzirehun eta hirurogeta seieko otsailak hogeia.
 - Mila eta zortzirehun eta hirurogeitamaseiko otsaileko hogeia.
 - Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiko otsailaren hogeia.
 - Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiaren urtarrilaren hogeia.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

28. “Non egon zarete? Lekeition, Ondarroan edo Bermeen?”.
- Hiruetan
 - Hirutan
 - Hiruotan
 - Hiruretan
29. Ondoko hitzetako batek ez du hatxerik behar. Zeinek?
- zihur
 - hurbil
 - haize
 - hurrengo
30. Ondokoetariko batean komaren erabilera zuzena da. Zein esalditan?
- Mikel, Jon, eta hirurok joango gara.
 - Gurekin bizi denak, badaki hori.
 - Gaur egun, arazo hau, ez da larria.
 - Min ematen dit, neuri behintzat, hori entzuteak.
31. Ondokoetariko batean ortografia-huts bat dago. Zeinetan?
- banan-banan
 - hitzez-hitz
 - bat-batean
 - batik bat
32. “..... oso kezkatuta etorri da”.
- Medikuarenetik
 - Medikuarengandik
 - Medikuanetik
 - Medikuagandik
33. “..... pozik atera zen futbol-partidatik”.
- Ikuslegoa
 - Ikusleria
 - Ikusmira
 - Ikusledia
34. Puntuazio-markei dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek, hori esatea ere!
 - Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek hori esatea ere?
 - Harrigarria; nork, eta zuk nire anaia zaren horrek, hori esatea ere.
 - Harrigarria, nork eta, zuk nire anaia zaren horrek hori esatea ere!



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

35. “Txapelketan parte hartzeko epea amaituko da”.
- hileko 15ean
 - 15 egunean
 - hilak 15ean
 - hilaren 15ean
36. “Usteak erdia ustel”. Noiz esaten da normalean?
- Norbaiten iritzia zuzena ez dela esateko.
 - Ustez, zerbait erdi ustelduta dagoenean.
 - Gauzak uste ez bezala ateratzen direnean.
 - Norbaitek gezurra esaten duenean.
37. Zein da zuzena “filma zuzendu duenak sari asko jaso ditu” adierazteko?
- Filmaren zuzendariak sari asko jaso ditu.
 - Filmeko zuzendariak sari asko jaso ditu.
 - Filmetako zuzendariak sari asko jaso ditu.
 - Filma zuzendariak sari asko jaso ditu.
38. Zein da zuzena?
- Autobusa berandu iritsi delaren aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
 - Autobusa berandu iritsi denaren aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
 - Autobusa berandu iritsi delako aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
 - Autobusa berandu iritsi deneko aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
39. Zein da zuzena?
- Bost pisutako etxea sal erazi diote.
 - Bost pisuko etxea saldu arazi diote.
 - Bost pisuko etxea salarazi diote.
 - Bost pisutako etxea sal arazi diote.
40. Zein da zuzena?
- Ez du ardorik ekarri, nahikoa dagoenez.
 - Eztu ardorik ekarri, nahikoa baitago.
 - Ez du ardoa ekarri, nahiko bait dago.
 - Ez du ardorik ekarri, nahikoa dago eta.
41. Zein da zuzena?
- Gure ama 1931eko otsailaren 20an jaio zen.
 - Gure ama 1931ko otsailak 20an jaio zen.
 - Gure ama 1931ko otsailaren 20an jaio zen.
 - Gure ama 1931ko otsailak 20ean jaio zen.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

42. Zein da zuzena?
- Hamar pertsonarentzako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
 - Hamar pertsonentzako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
 - Hamar pertsonetako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
 - Hamar pertsonen igogailua jarri dute errektoreordetzan.
43. Zein da zuzena?
- Txetxu etor erazi dut.
 - Txetxuri etorrerazi diot.
 - Txetxu etorrarazi dut.
 - Txetxuri etor arazi diot.
44. Zein da zuzena?
- Apirila osoan ez du horrenbeste euririk egin.
 - Salakuntz gogorra da, frogarik gabe egina izateko.
 - Gauz bat kontatu nahi dizut.
 - Lapurreta hiruretan gertatu zen, lekuko batzuek adierazi dutenez.
45. Zein dago zuzen euskara batuan?
- Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu bait ginen.
 - Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu baikin.
 - Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu baiginen.
 - Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu bait-ginen.
46. Zein forma EZ da erabili behar euskara batuan?
- Literatur lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
 - Literatur-lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
 - Literatura lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
 - Literatura-lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
47. “Zenbait mendi uxatu dituzte basabereak”.
- ederretik
 - ederratik
 - ederratatik
 - ederretatik
48. “Zenbat balio du?”
- kilo bat haragik
 - kilo batek haragi
 - haragiaren kiloak?
 - kilo bat haragiak



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

49. Zer da lerdea?

- a) mukia
- b) urina
- c) adurra
- d) gernua

50. "Zertarako zabaldu duzu leihoa?"

- a) Arnasa hobeki hartzearren.
- b) Arnasa hobeki hartu arren.
- c) Arnasa hobeki hartu nuelakoan.
- d) Arnasa hobeto hartzea nahi izango dudalako.

ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2010EKO MAIATZAREN 27a)

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu, eta galdera bakoitzak erantzun batzuk ditu aukeran. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik.

1. TESTUA

Letizia Bruni

Barka, internauta pornografia zaleok. Bilatzailean Letizia Bruni deitura sakaturik Italiako zinema pornoko izar distiratsuen irudi pizgarriak aurkitzea espero zenuten, eta hara non egin duzuen topo libidoari doakionez bromuroa bezain motelgarria den ene artikulua honekin. Titulua pentsatu dudanean ez nekien Letizia Bruni izeneko *porno stara* existitzen zenik. Azken unean, testua taxutzeko Interneten datu baten bila nenbilerarik jabetu naiz horretaz. Baina, halere, izenburuari eustea erabaki dut, zehar kalteak zehar kalte, Letizia Ortiz eta Carla Bruniri buruz idazteko aproposa iruditzen baitzait, baita –azken unean ezaguturiko kointzidentzia onomastiko horren karietara– haien arteko topaketaren kontura Madrilgo prentsan gailendu den kazetaritza-pornografiaren jarduteko ere. Esan bezala, barka, *mi scusi, sorry*.

Milaka internauta pornografia zaleei azalpenak eman eta gero, segi dezadan aurrera argia.com-en zein ARGIAren paperezko edizioaren ohiko jarraitzaileentzat. Kontua da zur eta lur utzi ninduela apirilaren 28ko *El País* egunkariaren azaleko irudiak. Carla Bruniren eta Letizia Ortizen ipurdiak, Nicolas Sarkozy eta haren emazteak Espainiara egindako bisita ofiziala ilustratzeko. Argazkian zehazki bi emakumeok Zarzuela jauregiko eskailerak igotzen ikus zitezkeen, tutu-soinekoak jantzita eta takoidun zapatekin, atzetik harturiko irudian. Nabarmenena, beraz, ipurdiak. Ipurdiak eta zolda. Zolda arrosa eta kazetaritza horia, ustez Espainian erreferentziatzeko den kazetan, ustez aurrerakoia den berripaperean –ikusitakoak ikusita, sozialdemokrata bainoago matxista-leninista–. *El País*en ipurdia bistan. Eta bistan da paperezko prentsa krisian dela. Denok bezala, krisi ekonomikoan. Baina, horretaz gain, eredu krisian. Internetek irakurleak kentzen dizkio eta telebistak agenda markatzen. Eta telebistan irudia da garrantzitsuena. Soilik ikusgarria dena azaltzen da telebistan. Eta soilik telebistan azaltzen dena da albiste. Hala, egunkarietan ere irudia nagusi. Eta Sarkozy jada ez da agintari autoritario atzerakoia, baizik eta Carla Bruni ederraren senarra. Eta Felipe printzea jada ez da monarkia bezalako erakunde artritiko eta antidemokratiko baten ordezkaria, baizik eta Letizia printzesa dotorearen senarra. Eta *El País* ez da egunkari serioa, baizik eta aleak saltze aldera edozer argazki ikusgarri azaleratzeko prest dagoen kazeta. Eta gero Cebrianek esanen du Interneteko kazetaritza ez dela serioa. Ez dakit zer bide segitu behar duen prentsa tradizionalak ataka estua gainditu ahal izateko. Argi dudak bakarra, bidea ez dela hori.

Juan Kruz Lakasta (www.argia.com)
(moldatua)

- 1) Zer dela-eta artikuluaen titulu hori?
 - a) Idazleak dio ezen ustekabeen aurkitu duela eta oso deigarria iruditu zaiola.
 - b) Irakurleak erakartzeko aproposa izan daitekeelako jarri du, oso ezaguna baita izen hori.
 - c) Arriskutsua izan arren, horrela uztea erabaki du, pentsatua zuen moduan.

- 2) Nola agertu zen hedabideetan, Madrilan, Ortiz eta Bruniren arteko topaketa?
 - a) Batez ere pornografia-alorreko kazetaritzan nabarmendu zen albistea.
 - b) Hango egunkari ezagun baten azaleko irudia benetan matxista izan zen.
 - c) Desberdin jaso zuten internautek eta prentsa idatziko irakurleek.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2010EKO MAIATZAREN 27a)

- 3) Albisteari emandako tratamendutik, zer ondorio ateratzen du?
- Saltzarren, ustezko prentsa serioak ere alde batera uzten duela jokabide txukuna.
 - Krisiak eraginda, egunkariak ere azkenean ohartu direla irudiak direla garrantzitsuena, telebistan bezala.
 - Arinagoa denez, Internet bidezko kazetaritza irakurleak bereganatzen ari dela, baina telebista dela erreferentzia nagusia.

2.TESTUA

Talidomida, pozoiztatetik itzaropenera

Orain 50 urte, haurdun zeuden emakumeei talidomida hartzeko aholkatzen zieten, gorakoak kentzeko eta lasaitzeko. Horren ondorioz, 10.000 ume baino gehiago akats genetiko eta fisiko larriekin jaio ziren, hankarik, eskurik edo belarririk gabe.

Merkatutik desagertu zenerako, gizartean arrasto nabariak utziak zituen talidomidak. Orain arte ez dugu ezagutu farmako hark umekiengan zuen eraginaren zergatia, baina martxoaren hasieran, *Science* aldizkarian argitara emandako artikuluan, Hiroshi Handa-k eta Tokioko Teknologi Institutuko haren kideek argibide interesgarriak eman dituzte. Arrain eta oilaskoekin egin dituzte probak eta talidomida injektatu ondoren sortutako enbrioiengan nabariak ziren malformazioak, baina ondoren CRBN deitu proteina injektatu eta hara non hazten diren hankak, hegaleak eta bestelakoak garatzen.

Beraz, talidomida pozoia da bere horretan, baina arestian aipatu CRBN proteinarekin batera pozoiztatetik medikamentu izatera igarotzen da, lepra eta hainbat odol-minbiziren aurka eragiteko balio duena.

Joxerra Aizpurua, *Argia* (2010-04-04, 2.225.zenb)
(moldatua)

- 4) Zer gogoeta eragin dio idazleari *Science* aldizkariako artikulua?
- Haurdun dauden emakumeei, gaur egun, talidomida lasai asko eman dakiekeela.
 - Orain zientzialariek farmako horrek umekiengan zuen eragin kaltegarrien zioaz gehiago dakitela.
 - Akatsekin jaiotako 10.000 umeri beste proteina bat injektatuta laster errekuperatuko dituztela hankak, eskuak edo belarriak.
- 5) Zer utzi nahi du argi Joxerra Aizpurua bere artikuluan?
- Orain 50 urte talidomida aholkatu aurretik arrain eta oilaskoekin egin behar izan zituztela probak.
 - Pozoi batek beste proteina batekin konbinatuta hainbat gaixotasun larri sendabidean jar ditzakeela.
 - Edozein pozoiztatetik CRBN proteinarekin batera medikamentu bihurtzen dela.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2010EKO MAIATZAREN 27a)

AUTO ELEKTRIKOAK

Hurrengo autoa, elektrikoa?

(Elhuyar, 2010/04)

Joan den otsailean Donostian bizitakoaren ondotik, bazirudien dena egina eta prest dagoela. Auto elektrikoak bai ala bai eta berehala ordezkaturiko dituztela ohiko autoak. Auto elektriko horietan garatzen eta saltzen dituzten pertsonak, ordea, ez dute horren garbi autoak eta merkatua prest daudunik. Izan ere, gainditu beharreko zailtasunak ez dira hutsak.

Ikuspegi teknologikotik, baterietan dago erronka handiena. Seriean garatu ahal izango diren bateriak merkeak garatzeko modua asmatzea da erronketako bat, eta auto elektrikoek orain dutena baino autonomia handiagoa emango dieten bateriak garatzea beste bat. Hala ere, horretan ari direnek diote denbora kontua dela batez ere, eta bi urteko epean gai izango direla helburu horiek erdiesteko.

Oztopo teknologikoak baino handiagoak dira merkatuak eta gure bizimoduak berak gainditu beharrekoak. Izan ere, aldaketa sakonak dakartza eskutik auto elektrikoak. Potentzia eta autonomia handiko autoetara ohituta gaude, hiru minutuan tanga bete eta 700 kilometro egiteko askatasuna izatera. Auto elektrikoek, aldiz, 200 kilometroko autonomia emango digute onenera ere, eta autoa non, nola, eta zer abiaduratan kargaturiko dugun, argitu gabeko auzia da oraindik ere. Sare elektrikoak

badu gaitasuna hainbat milioi kotxe elektriko gauzez birkargatzeko, baina gure bizimodua eta bizitokiak ez daude horretarako pentsatuta eta egokituta. Eta nago pizgarri ekonomikoak baino zerbait gehiago beharko dugula auto elektrikoetara masan aldatuko bagara. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa dute auto elektrikoek gobernuen eta erakunde publikoen bultzada, baina erosotasuna funtsezkoa izango da erosleak erakarri eta asebetetzeko. Nekez egingo diogu uko horri.

Azkenerako, ironikoa ere bada, neurri batean, hau dena. Izan ere, ez ote gara dena aldatzen ari, berdin segitzeko? Petrolioak elektrizitatez ordezkatu, eta aurrera segituko dugu, ikerlagarriko aurrerapausoa eman dugulakoan, harro, baina nor bere automobilaren mende? Ohikoak baino hobeak dira auto elektrikoak, bai, baina barkaezina izango litzateke trantsizio honetan gure mugikortasun-ereduari astindurik ez ematea.

Eider Carton

Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkariaren zuzendaria

Gidatze- eta mantentze-lana

Mondragon Unibertsitateak REVA markako auto elektriko pare bat erosi ditu probak egiteko eta ikerketarako. Auto elektrikoa gidatzean, autonomia mugatuaz gain, gehien nabaritzen dena zaratarik eza dela dio unibertsitate horretako ikertzaile den David Garridok. “Gidatzean, norberaren autoaren ordeza, ondoko autoen zarata entzuten da, eta gurrupilek errepidearen kontra egiten duten zarata. Errepidea sentitzen da, autoaren ordeza”. Baina bada beste alderik ere: auto elektrikoetan ez da martxarik, eta, beraz, abiadura-palankarik ere ez.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2010EKO MAIATZAREN 27a)

Auto elektrikoa sinpleagoa da —olio- eta iragazki-aldaketarik ez du behar, adibidez— eta horrek mantentze-lana errazagoa eta merkeagoa egingo du, Garridoren iritziz. “Ohiko autoetan erregai-tanga, katalizatzaila, pistoiak... daude, eta horiek guztiak, gainera, pieza mugikorrek dira. Mugikorrek diren piezak errazago hausten dira. Auto elektrikoak, aldiz, motorra, bihurgailua eta bateria ditu osagai nagusiak. Mugitzen den bakarra motorra da, eta biratzeko soilik”. Iritzi berekoa da Garridoren lankide Ibon Ajuria ere: “Auto elektrikoan, gehiena elektronika da, eta elektronikak ez du mantentze-lanik behar. Bateriek ere ez dute mantentze handirik behar”.

Manex Urruzola
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

- 6) Testuak dioenaren arabera, honako adierazpen hauetatik **zein EZ da egia?**
- Teknologiaren aldetik, ez dago zailtasunik auto elektrikoen bateriak ekoizteko; batez ere denbora behar da.
 - Auto elektrikoek berehala ordezkatu dituzte ohiko autoak, adituei huskeria iruditzen zaizkien zailtasun batzuk gainditu ondoren.
 - Dirudenez, gaur egun ez da erraza bateria asko, merkeak eta iraunkorrak ekoiztea.
- 7) Testuak dioenaren arabera, honako adierazpen hauetatik zein da egia?
- Auto elektrikoak komertzializatzeko zailtasunetan, merkatuak eta gure bizimoduak baino pisu handiagoa dute oztopo teknologikoek.
 - Erabiltzaileen erosotasuna izango da giltzarria auto elektrikoak ugaltzen hasteko; izan ere, askoz ere erosagoak suertatuko zaizkigu auto elektrikoak ohikoak baino.
 - Erabiltzaileen erosotasuna izango da giltzarria auto elektrikoak ugaltzen hasteko; izan ere, iradokitzen da erosleek ohiko autoekin jarraituko dutela auto elektrikoa deserosagoa suertatzen bazaie.
- 8) Testuak dioenaren arabera, honako adierazpen hauetatik **zein EZ da egia?**
- Gure mugikortasun-ereduan, aldaketa batzuk gorabehera, berdintsu segitzen dugula iradokitzen du Eider Cartonek.
 - Auto elektrikoek dakarten aldaketa honekin —iradokitzen du Carton andereak—, aukera aprobeztatu behar genuke gaur egun dugun mugikortasun-eredua aldatzeko.
 - Petrolioa elektrizitatez ordezkatzuz, ikaragarritzko aurrerapausoa emango dugu gure mugikortasun-ereduan.
- 9) Testuak dioenaren arabera, honako adierazpen hauetatik zein da egia?
- Zarata handiegirik ez, baina pixka bat egiten omen dute auto elektrikoek, eta zarata hori nola murriztu ari dira ikertzen David Garrido eta Ibon Ajuria.
 - Mondragon unibertsitateak auto elektriko bi erosi ditu, eta hango ikertzaileek diote auto elektrikoak ohiko autoak baino isilagoak direla, eta osagai iraunkorragoak dituztela.
 - Auto elektrikoek ez omen dute martxarik, ez eta abiadura-palankarik ere, eta akats hori nola gainditu ari dira ikertzen David Garrido eta Ibon Ajuria.
- 10) Testuak dioenaren arabera, honako adierazpen hauetatik **zein EZ da egia?**
- Ohiko autoak mantentzea auto elektrikoak mantentzea baino zailagoa eta garestiagoa da.
 - Ohiko autoen osagai batzuk (erregai-tanga, katalizatzaila, pistoiak...) mugikorrek dira, eta, beraz, apurtzen errazagoak.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2010EKO MAIATZAREN 27a)

- c) Auto elektronikoetan, elektronika da nagusi, eta piezak erraz hausten dira: horrek zaildu eta garestitu egiten ditu halako autoen mantentze-lanak.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**
3. ARIKETA: IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulu faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkundelanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiagi aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Egoitza-auzoen diseinua.	Kursaal auditorioa.
Artea	Euskal margolariak.	Konpara itzazu erromanikoa eta gotikoa.
Biologia	Amazonas inguruko basoak.	Biologia eta biologoak gaurko gizartean. Zer lan egiten dute biologoek? Badu garrantzirik biologoen lanak gizartearen aurrerapenari eta hobekuntzari begira?
Ekonomia	Munduko ekonomiaren ezaugarri orokorrak.	Inbertsio-proiektuak hautatzeko irizpideak.
Filologia	Euskara munduko hizkuntzen artean.	Emakumea eta literatura
Filosofia	Erdi Aroko filosofo islamiar eta juduak.	Filosofia garaikidearen historia.
Fisika	Oszilazioak: higidura motak.	Grabazio unibertsalaren legea.
Geografia	Europar Batasuna gaur eta etorkizunari begira.	Euskal Herriaren geografia: ezaugarri nagusiak eta ezaugarri horien ondorioak.
Geologia	Erregai fosilak.	Harri motak: kareharria, granitoa, hareharria. Non dira halakoak Euskal Herrian?
Gizarte Zientziak	Parte-hartze politikoa eta hauteskundeak.	Demografia dinamikoa.
Heziketa Fisikoa	Jarduera fisikoen onura psikologikoak.	Dopina kirolean.
Historia	Aldi historikoak historiaurretik gaur arte. Nola banatzen da gizakien historia?	Zer dakizu euskal foruez? Zertan dira gaur egun?
Informatika	Konputagailu-sare lokalak.	Objektuei zuzendutako programazioa.
Informazioa	Izan daiteke objektiboa irradi edo egunkari bat? Kazetaritzaren objektibotasuna.	Emakumearen irudia publizitatean: genero-arazoak.
Kimika	Azido-base sistemak.	Plastikoak.
Matematika	Matrizeak eta determinanteak.	Zenbaki multzoak eta eragiketak.
Osasuna	Osasuna herrialde aberatsetan eta txiroetan:	Medikuak eta erizainak: bat eta bestearen



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

	egoera, arrazoiak, konponbideak...	lanak eta bien arteko harremanak.
Pedagogia	Irakaskuntza Euskal Herrian.	Hezkuntzaren alde soziala.
Psikologia	Nola antolatzen du psikologoak elkarrizketa bezero batekin?	Psikologoek lan-esparru berriak: kirola, enpresa...
Teknologia	Ordenagailuak eguneko zereginetan. Noraino behar dira?	Energiaren sorkuntza eta erabilera.
Zuzenbidea	Hitzarmen kolektiboak.	Kolonia izandako herrien autodeterminazio-eskubidea.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**

UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)		EZ GAI (< 32)

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)		EZ GAI (< 6)

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**
**UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

 Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak:



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK
(2010EKO MAIATZAREN 27a)**

AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUNAK

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUNAK

1 C	2 B	3 A	4 B	5 B
6	7	8	9	10